



Iraunkortasunari eta Klimari buruzko Urteko Txostena 2021

## **DONOSTIAK INGURUMEN KALITATE MAILA EZIN HOBEAK MANTENTZEN DITU**

Cristina Enea Fundazioak Iraunkortasunari eta Klimari buruzko Urteko Txostena argitaratu du, zehazki 2021. urteari dagokiona. Txosten horrek agerian uzten du hiria pandemia aurreko baldintzetara itzuli dela; baina, hala ere, Donostiako herritarren zenbait bizi-ohitura aldatu dituela pandemiak.

Iraunkortasunari buruzko Urteko Txostena klima-aldaketaren aurkako borrokaren eta klima-aldaketarekiko egokitzapenaren ikuspegitik egin eta planteatzen da, Klima Aldaketaren Aurkako Donostiako Planean (DSS Klima 2050) ezarritako jarduera-eremuak kontuan hartuta. Azterlanak beste eremu erabakigarri batzuei buruzko informazioa ematen du, hirian bizi, lan egin eta hura bisitatzen duten pertsonen bizi-kalitatea eta ongizatea ebaluatzeko.

Ekologiako zinegotzi Marisol Garmendiak adierazi du txostenak Donostiari buruzko azterketa egokia egiten duela, oro har. Horrez gain, hau ere aipatu du: «bizi-kalitateari buruzko item nagusiek datu positiboak ematen dituzten arren; ezin gara erlaxatu, batez ere klima-aldaketaren ondorioei aurre egiten lagunduko diguten ingurumen-helburuak lortzeko orduan. Ez da Udalaren erronka bat, hiri osoarena baizik. Erronka kolektibo horri egunero egiten diogu aurre, politika publikoetan eta gutako bakoitzaren eguneroko zereginetan».

# Prentsa oharra

## Nota de prensa

### >>> DATU NAGUSIAK

Hiriaren hornidurarako erabiltzen den **uraren kalitateak** ezin hobea izaten jarraitzen du: **Egindako analisien % 99,71ek emaitza onak izan dituzte.** Urumea ibaiko ingurumen-helburuek hobetzen jarraitzen dute, batez ere bokaletik gertuen dauden eremuetan, non uraren kalitatearen analisiek datu global onak eman dituzten Santa Katalinan eta Monpas eremuan, nahiz eta kalifikazio okerragoa mantentzen den Maria Kristina eta Loiolako zubien artean.


**Uraren guztizko kontsumoa (207 litro pertsonako eta eguneko)** 2019 aurreko mailetara itzuli da, 2020an pandemiaren eraginez gora egin ondoren; izan ere, pandemiak etxeko kontsumoa areagotu egin zuen: 2019an pertsonako eta eguneko 134 litrokoa zen kontsumoa, eta 2020an, berriz, 144 litroa iritsi zen. 2021. urtean, etxeko kontsumoa 138 litrokoa izan da pertsonako eta eguneko.

**Hiriko airearen kalitatea** udalerriko neurketa-estazioen bidez aztertzen da. Tolosa hiribideko eta Easo kaleko estazioetan, **aire-kalitate «oso oneko» edo «oneko» egunak % 95** izan dira; **% 90** izan dira horrelako aire-kalitateko egunak Ategorrietako estazioan, eta **% 88** Puioko estazioan.

Elektrizitatearen kontsumoa pixka bat areagotu da (% 1) 2020ko jaitziera handiaren ondoren (% 5,9), eta urtean batez beste 3.524 kWh kontsumitzen dira biztanleko. Pandemiak ere eragina izan du datuetan; izan ere, momentu gogorrenetan, industriaren eta zerbitzuen elektrizitate-kontsumoak behera ezin zuen, eta etxeetakoak, berriz, gora. Hala ere, poliki-poliki pandemia aurreko normaltasunera itzultzen ari gara. Gasaren kontsumoak gora egin du (% 8,5), hau da, urtean 4.018 kWh kontsumitzen da biztanle bakoitzeko.

#### CONSUMO ENERGÉTICO TOTAL DEL MUNICIPIO

Fuente: Ente Vasco de la Energía (EVE) y Dirección de Salud y Medio Ambiente (Ayuntamiento de San Sebastián)



# Prensa oharra

## Nota de prensa

Bestalde, **iturri berriztagarrietatik** sortutako energiari dagokionez, 2018. Urtean Txomin auzoan District Heating sistema ezartzearen ondorioz biomasaren gaitasun instalatua nabarmen areagotu ondoren —sistema horrek 7.400 kW-ko potentzia instalatua du eta 1.500 etxebizitzari berokuntza eta ur beroa ematen die—, kalkuluen arabera, 2021. urtean 12.190.962 kWh-koa izan da energia berriztagarriek ekoizpen globala Donostian; hau da, 65 kW biztanleko. Horrek esan nahi du % 13,5 areagotu dela 2020arekin alderatuta.

### >>> HONDAKINAK

Pandemiak ere izan du eragina hondakin-kopuruan; 2020. urtearekin alderatuta, hondakinen kopuruak % 2,7 egin baitu gora; biztanleko 455 kg hondakin sortu dira urtean; hala ere, kopuru hori 2019koa baino apalagoa da, urte hartan 6,5 milioi hondakin gehiago sortu baitziren. Hondakinen gaikako bilketa-tasak behera egin du: 2021ean sortutako hondakinen guztizko kopuruaren kontuan hartuta, horien % 41,77 bildu baita gaika. Datu horiek 2019koen oso antzekoak dira.

Biztanle bakoitzeko 190 kg hondakin bildu dira gaika, aurreko urteetan baino pixka bat gutxiago (194 kg baino gehiago pertsonako 2018an eta 2019an). Hondakindegira eramandako edo balorizatutako hondakinak % 4,5 areagotu dira, hau da, 265 kg/biztanleko.

Material organikoari dagokionez, 30.691 familiak eta hainbat motako 1.917 establezimenduk parte hartzen dute edukiontzi espezifikoaren bidez hondakin organikoak biltzeko sisteman. Bildutako materia organikoaren guztizko kopurua 5.122.650 kg izan da; hondakin organiko gehiago bildu da familiek erabiltzen dituzte kaleko edukiontzien bidez, zehazki 2020an baino % 3,3 gehiago; era berean, ekoizle handi batzuen hondakin organikoen bilketa areagotu da. Gainera, 806 etxebizitza-unitatek banakako konpostagailua dute eta 96 familiak parte hartzen dute hiriko 8 auzotan prestatutako auzokonposta programan.

### MATERIA ORGÁNICA

Fuente: Dirección de Mantenimiento y Servicios Urbanos. Dirección de Salud y Medio Ambiente (Ayuntamiento de San Sebastián)


	EVOLUCIÓN DE LA RECOGIDA DE MATERIA ORGÁNICA										
	2011*	2012*	2013*	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Cantidad recogida total (kg)	858.865	907.410	1.038.062	2.367.960	4.770.700	4.919.800	4.912.600	5.135.120	5.456.155	4.942.270	5.122.650
Nº de familias adheridas	3.609	3.839	4.406	17.807	21.050	22.939	24.184	25.731	28.132	29.562	30.691
% familias adheridas	21 %	24 %	26 %	23 %	27 %	30 %	31 %	33 %	36 %	37 %	39 %
Nº de establecimientos adheridos				1.348	1.559	1.569	1.627	1.717	1.812	1.863	1.917

# Prentsa oharra

## Nota de prensa

### >>> MUGIKORTASUNA

Pandemiak eta horren ondorioz ezarritako murrizketek **mugikortasuna** baldintzatu dute: garraio publikoaren erabilerak behera egin du; baina hiriko bitzta normaltasunera itzultzen ari den heinean, erabilera areagotzen ari da. Hiri barruan 25.581.781 joan-etorri egin dira guztira (Dbus, Lurraldebus, EuskoTren eta Renfe). Horrek esan nahi du urtean **136 joan-etorri egiten direla biztanleko, eta 2019an, berriz, 179**; hala ere, beherakada txikiagoa izan da Donostian, antzeko tamainako Espainiako gainerako hirietan baino. Hiri barruko joan-etorri horien % 87 Dbusen egiten dira.



**Bizikletaren erabilerak nabarmen egin du gora.** Egunean, batez beste, 28.274 joan-etorri egin dira bizikletaz; hau da, 2020an baino % 14 gehiago, eta 2019an baino % 30 gehiago. Motorizazio-indizeak gora egin du, eta horrek esan nahi du 417 auto eta 148 motor daudela 1.000 biztanleko. Nabarmendu behar da hirian matrikulatutako ibilgailuen % 75,5ek duela ingurumen-bereizgarriren bat, baina % 2,6 soilik sartzen dela eraginkortasun energetiko handieneko ibilgailuen kategorian, haien ingurumen-inpaktua kontuan hartuta.

Hiriko zirkulazioaren intentsitatea eta abiadura murrizteko eta espazio publikoak berreskuratzeko egindako jarduketei esker, **kutsadura akustiko** handipean dauden pertsonen kopurua murrizten ari da. **OMEk gomendatutakoa baino zarata-maila handiagopean dagoen biztanleria % 11ra** murriztu da, 2011 urteko % 30aren aldean. Donostiako Udalerriko Soinu Ingurua Hobetzeko Ekintza Planak xedatutakoaren arabera, hurrengo 5 urtetan OMEK gomendatutakoa baino zarata-maila handiagopean dagoen biztanleria % 5aren azpitik murrizteko neurriak aplikatuko dira.

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



Urbanizatutako azaleraren % 28,2 osatzen du Donostiako errepide-sareak; eta aipagarria da errepide horien % 88,5ean 30 km/h-ko abiadura-muga ala muga apalago bat dagoela ezarrita. Aurrerapauso handia da hori, hain zuzen ere Donostia "30 hiria" bihurtzeko helburua lortzeko bidean, horri esker, bizikletek segurtasun handiagoz zirkulatu ahal izan dezaten. **Bidegorri-sareak 83,8 km ditu dagoeneko**, eta bizikleta-bide bereizien 1.350 metro berri eraiki ziren iaz. **Berdeguneei dagokienez, azalera urbanizatuaren % 20,3 hartzen dute**, eta horrek hau adierazten du: biztanle bakoitzeko batez besteko berdegunea 21,21 m<sup>2</sup> dela.

### >>> EMISIOAK

Datuak 2019. urtekoak dira, Eusko Jaurlaritzak ez baititu datuak eguneratu.

2019an, Donostian, **berotegi-efektuko emisioak** % 6,02 murriztu ziren 2018. urtearekin alderatuta, eta 2016tik hautemandako goranzko joera eten zen. Emisioak esparru guztietan murriztu ziren (etxebizitzak, zerbitzuak, garraioa eta industria), hondakinetan eta nekazaritza zein abeltzaintzan izan ezik. Mugikortasuna zen oraindik ere hiriko emisioen iturri nagusia (guztizkoaren % 42), eta ibilgailu pribatua izan zen emisio-foku nagusia. 2019ko emisioak, pertsonako 5,96 tona CO<sub>2</sub> baliokide izan ziren guztira (4,17 industriarik gabe); EAEko BEG guztien guztizko emisioak biztanleko 8,43 tCO<sub>2</sub> izan ziren, eta industriarik gabe, 4,57 tCO<sub>2</sub> biztanle bakoitzeko.

### >>> LURZORUA

Hiriaren azalera osoaren % 32,23 **lurzoru urbanizatua** da; nahi eta **azalera artifizializatua** udalerriaren azaleraren % 43,39 izan. Horrek esan nahi du apur bat areagotu egin dela lurzoru urbanizatua —bereziki Zubieta inguruan eraikitakoagatik—, baina, hala ere, zifra ez da ia aldatuz 2019az geroztik.

**Kutsatuta egon daitezkeen lurzoru identifikatuei** dagokienez, udalerriaren azalera osoaren % 2,4 dira. 2006tik 2019ra bitartean 47 kokaleku ikertu dira, guztira 15 hektareako azalerarekin.

**Biodibertsitatearen babesari** dagokionez, azalera babestua 1.678 hektareakoa da Donostian, udalerriaren azalera osoaren % 27,53. Natura 2000 Sarea arduratzen da azalera babestu horren % 11 kontserbatzeaz, horrek esan nahi du udalerrri osoaren azaleraren % 4 kontserbatzeaz arduratzen dela.

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



Txostenean, **hiriko elikadura-sistemari** buruzko informazioa ere jasotzen da. Balio agrologiko handiko lurzatiek eta ustiategi estrategiko inbentariatuek 327,61 ha okupatzen dituzte, hau da, udalerriaren % 5,4. Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluan (Ekolurra) izena emandako 9 operadore daude Donostian, eta guztira 13 ha erabiltzen dituzte nekazaritza ekologikorako. Donostiako Udaleko Ingurumen Atalak udalerrian dauden nekazaritza-jarduera ez-profesionalei buruz egindako azterlan baten arabera, gutxi gorabehera 2.500 pertsona inguruk egiten dituzte nekazaritza lanak lursailetan, eta beraz, aisialdiko edo autokontsumoko baratze horiek jarduera esanguratsua direla ondorioztatu da. Datuen arabera, biztanleriaren % 1,5 inguruk egiten du jarduera hori.